

Herrira

“Herrira” mugimendua
sorrerako agiria



1. Aurrekariak


Preso eta iheslari politikoen inguruan jardun ugari garatu da Euskal Herrian urteetan zehar. Kolektibo hauen eskubideak eta elkartasuna izan dira etengabeko aktibitate hauen guztien ardatz ohikoena, Euskal Herri osoan barrena indar eta eragin handiz aritu izan dena.

“Herrira” mugimendua ez da aipaturiko jardueren edota horiek zuzendu dituzten eragileen ondorengotza gisa sortu, ez eta horiek ordezkatzeko bokazioarekin ere.

Alabaina, azken hilabeteetan, Euskal Herrian zabalduko testuinguru politiko berrian, preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekinbide parte hartzaile eta arrakastatsua garatu da Egin Dezagun Bidea ekimenaren eskutik. Herritar mordoa inplikatu gara dinamika honetan eta mota guztietako eragileek bat egin dute burutu diren ekimen askorekin.

Ekimen honen inguruan inplikaturiko pertsona batzuk aspaldian dabiltza presoan eskubideen aldeko jardunean. Beste batzuk zuzenean ezagutzen dute kartzela, senide edo lagun bat preso dutelako, edo inoiz preso izan direlako. Beste askok aldiz, preso eta iheslarien egoerari behingoz eta betirako irtenbidea emateko unea dela sinetsita inplikatu dira lehen aldiz jardunbide honetan. Azken batean, preso eta iheslarien egoera dugu kezka iturri eta honi irtenbidea ematea helburu. Ideia honekin bat egiten dugun guztion bilgunea bilakatu da Egin Dezagun Bidea ekimena, gero eta konpromiso gehiago eta sendoagoak bilduz, hedapen gero eta zabalagoa duelarik.

Gauzak horrela, premiazkoa suertatu da arrakasta handiz garatzen ari den dinamika hau behar dituen tresnez hornitzea. Asmo horrekin jaio da “Herrira” mugimendua.





2. Printzipioak eta eginkizuna

Urteetako gatazka eta enfrentamenduak ondorio asko utzi ditu gure herrian. Horien artean, preso eta iheslari politikoak. Kolektibo hauek, gatazkaren parte eta ondorio dira. Gatazkari irtenbide demokratikoa eman eta bake egoera bat ezartzeko prozesuak, denen parte hartzea eskatzen du egiazkoa eta behin betikoa izan nahi badu, baita preso eta iheslari politikoena ere. Horrez gain, konponbideak gatazkaren ondorioak gainditzea ekarri behar du, eta beraz, preso eta iheslariak etxera itzultzea.

Gatazkaren arrazoiak konpontzea da, zinez, honen ondorioak saihesteko giltza. Alta, preso eta iheslari gehiago ez izateko bermeak, gatazkaren arrazoiei irtenbidea ematean datza. Amnistia kontzeptuak biltzen du honakoa, preso eta iheslarien etxeratzea, egoera horretara eraman dituen zioen gainditzean testuinguratzen baitu. Horrela bada, Amnistia da gure iparra, eta preso eta iheslariak etxeratzea da gure eginkizuna.

Gatazkari irtenbide demokratikoa, egiazkoa eta integrala emateko, bat egiten dugu Gernikako Akordioak marrazturiko ibilbide orriarekin eta harekin irmoki konprometitzen gara. Ibilbide horretan, preso eta iheslariak etxera ekartzea, geure egiten dugun erronka saihestezina eta eginkizun historikoa da.

Honako eginkizunak batzen gaitu, ez aldiz egitasmo politiko jakin batek, ez eta ideologia bakar batek ere. "Herrira" mugimenduak ez du inolako alderdi edota erakunde politikorekiko inolako menpeko loturarik. Areago, gure aspirazioa ez da politikagintzan aritzea, preso eta iheslariak etxera ekartzeko helburuarekin bat egiten dugun herritarron mugimendua eraikitzea baizik.



3. Helburuak

Gure helbururik behinena, preso politikoei aplikatzen zaizkien salbuespeneko neurriak indargabetzea da. Hala nola dispersioa, bizi arteko kartzela zigorra ezartzeko neurriak, gaixorik direnak preso mantentzea, isolamendua eta bakartzea. Giza eskubideen ikuspegitik, edozein testuingurutan lekuz kanpo dauden neurriak dira. Horrez gain, errepresio eta mendekurako neurriak dira, eta beraz, konponbidearen aurkakoak.

Presoen kolektiboa Euskal Herrian batzea, bere eskubide guztien jabe izanik, eta konponbide prozesuan parte hartzeko aukera osoarekin: Gaur egun presoen kolektiboari parte hartzeko aukera eta bideak isten zaizkio. Euskal Preso Politikoen Kolektiboa konponbide prozesutik baztertzeko eta bere baitan sakabarnatzeko helburuarekin aplikatzen diren neurri eta politikak desagertzea dugu helburu. Areago, parte hartze hau garatzeko neurriak indarrean jartzea beharrezkoa dela uste dugu, presoak Euskal Herrian batuz, harreman bideak ahalbidetuz.

Iheslari Politikoen aurkako jazarpen eta pertsekuzioa amaitzea, eta iheslarien kolektiboak konponbide prozesuan parte hartzeko baldintza egokiak izatea ere bilatzen dugu.

Gatazkaren ondorio diren heinean, preso eta iheslariak etxera ekartzea, helburu historikoa da XXI. men-

dean Euskal Herrian abian den atzera biderik gabeko konponbide prozesuan. Honako helburua, gertakizun batean baino, ibilbide batean taxutu behar dela ulertzen dugu, hau da, ezereen zain egon gabe, gaurdanik hasi, eta urratsez urrats, preso eta iheslariak etxera ekartzen joateko bidea egin nahi dugu, den denak herrian libre izan arte amaierarik ez duen bidea.

Laburbilduz, “Herrira” mugimenduaren helburuak honako hauek dira:

- ***Euskal preso politikoen aurkako salbuespen neurriak indargabetzea: dispersio politikari amaiera emanez; gaixorik diren presoak aske utziz; bizi arteko zigorra ezartzeko neurriak indargabetuz, hala nola, 197/2006 dotrina derogatuz, zigorraren 2/3 eta 3/4 bete dituzten presoak aske utziz, Frantzia preso direnei baldintzapeko askatasuna aplikatuz; eta azkenik, isolamendu, mittard eta bakartze egoerei amaiera emanez.***
- ***Euskal Preso Politikoen Kolektiboa Euskal Herrian batzea, dagozkion eskubide guztiak bermatuak izanik eta prozesu demokratikoan parte hartzeko aukera eta bideak indarrean jarritz.***
- ***Iheslari politikoen aurkako jazarpena amaitzea eta prozesu demokratikoan parte hartzeko aukera irekitzea Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboari.***
- ***Preso eta Iheslari politiko guztien etxeratzea, gatazkaren konponbide prozesuari loturiko ibilbide dinamiko baten garapenean.***



4. Konpromisoak


“Herrira” mugimenduaren konpromiso nagusia, sentsibilitate eta izaera desberdinak izanik ere, printzipio eta helburu hauekin bat egiten duten herritarrak bildu eta antolatzeko markoa eta baliabidea eskaintzea da. Helburu hauen alde aritzeko herritarren elkargunea eraiki nahi dugu, askotariko konpromisoerik eta ekarpen mota desberdinei bide emanez. Horri erantzuten dio mugimendu hau sortzeko eta garapena emateko gure konpromisoak.

Aipatutako helburuen alde eragiteko gehiengo soziala aktibatzea, herritarren mobilizazioa sustatuz, jendarteko mota guztietako eragileen konpromisoak bultzatuz, hala nola instituzioetan, politikagintzan, sindikalgintzan, hezkuntza eremuetan, herri mugimenduan, kulturgintzan, etab.

Preso eta iheslarien egoeraren inguruko informazioa biltzea eta plazaratzea, komunikazio lanaren bidez jendartea honen jabe eginez, eta urratzaileak diren egoerak gainditzeko proposamen eta neurriak sustatuz.

Preso eta iheslarietarako, eta beraien ingurune hurbilarekiko elkartasuna sustatzea eta antolatzea, solidartatea balore gisa hedatuz eta praktika gisa landuz.

Nazioarteko komunitatea sentsibilizatzea eta inplikatzeko, horretarako beharrezkoak diren harremanak garatuz eta elkarlan esparruak antolatuz.





5. Izaera

“Herrira” mugimenduaren izaera ondorengo ezaugarrien arabera osatzen da:

- *Mugimendu berria eta berritzailea:*

Mugimendu berria garen heinean, Euskal Herrian zein munduan, herri mugimenduetan arrakasta izan duten molde eta esperientziak kontuan izango ditugu. Hala ere, gaur egungo euskal jendartearen erreallitatean errotu eta bertatik bertara aritu nahi dugu, kultur joera berriak aintzakotzat hartuz, erreallitate sozialari so eginez, eta informazio eta komunikaziorako teknologiek ematen dituzten aukerez baliatuz.

- *Herritarren mugimendua:*

Mugimendu hau herritarrok osatzen dugu. Herritarrekin lan egin nahi dugu, herritarrengandik hurbil eta etengabeko konexioan. Herritarren ekarpenarekin osatuko da mugimendu honen ibilia. Hartara, mugimendu parte hartzailea izango da, herritarrekin erraz konektatuko duten diskurtso eta aktibitateak sortu eta eskaini asmo dituena.

- *Euskal Herrikoa eta Euskal Herriako mugimendua:*

Euskal Herria dugu sorleku, Euskal Herriko mugimendua gara. Euskal Herri osoan eta Euskal Herri osorako lan egingo dugu, ahal bezainbat bazter eta txokoetara iritsiz. Alta, gure herriko herrialde, eskualde eta lurralde eremuen artean ematen diren egoera eta erritmo desberdintasunei erreparatuz, horiek aintzat hartuz eta guztiei egokitzeko moduan arituko gara. Desberdintasun hauek aberastasun gisa ulertzen ditugu. Ez ditugu hargatik irizpide homogenitzatzaileak ezarriko, bateratzaileak diren arrazoibideak adostuko baizik.

- *Euskal Herriko mugez harago iritsi nahi duen mugimendua:*

Gure mugez harago badira helburu hauekin bat egiten duten eragile eta pertsona ugari. Mundua eremu zabala da eta euskal preso eta iheslarien aldeko elkartasunak badu aski hedapenik. Nazioartean elkartasun eta elkarlan bila ibiliko gara.

- *Eraginkorra izan nahi duen mugimendua:*

Ez da makala esku artean dugun erronka. Horregatik, adosturiko helburuen aldeko lan sendoa egitea beharrezkoa izango zaigu: aldaketak eragiteko moduko ildoak jorratuz, presio soziala sortuz, indar metaketa handiak eraginez, eta sentibilizazio lan sakona eginez, besteak beste.

Horrela bada, mugimendu honen jarduna kalean garatuko da gehienbat, komunikazio lan handiarekin, ekintza ikusgarriekin, mobilizazio parte hartzaileekin, etab.

- *Mugitzen den mugimendua:*

Aktibitate sendoa garatu nahi dugu, egun preso eta iheslari politikoen egoera larriak hala eskatzen duelako,

bai eta guztiak etxera ekartzeko bidea batere makala ez delako. Horregatik, ardura eta konpromiso sendoko aktibisten mugimendua gara.

• *Askotariko mugimendua:*

Mugimendu honen printzipio eta helburuekin bat egiten duen orok lekua du bertan. Ez gara pentsaera bakarrekoak, preso eta iheslariak etxera ekartzeko helburuak batzen baikaitu hemen. Ekarpen eta borondate guztiei atea zabalik dizkie “Herrira”-k. Konpromiso handi eta txikiak, mota bateko edo besteko proposamenak, denak dira beharrezkoak.

• *Aldarrikapenetan argia:*

Helburu argiekin sortu garen bezala, aldarrikapen argiekin arituko gara horiek lortzeko asmotan. Helburu eta aldarrikapen hauekin bat egiten duten guztiak bildu nahi ditugu bide honetan, eta gaur ados ez direnak bihar ados egon daitezen konbentzitzeko ahalegin guztiak egingo ditugu.

• *Euskalduna eta eleanitza:*

Euskara izango da “Herrira” mugimenduaren hizkuntza nagusia, barne zein kanpo komunikazioan. Alabaina, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuko dugunez, gaztelania eta frantsesa ere erabiliko ditugu. Horrez gain, nazioartean jarduteko lekuan lekuko hizkuntzak ere erabiliko ditugu.



6. Antolatze eredua

“Herrira” mugimendua antolatzeko irizpide nagusiak parte hartzea eta eraginkortasuna dira. Hartara, mugimendu honek atea zabalik ditu bertan ekarpena egin nahi duten herritar guztientzat. Bestalde, eraginkortasunak ekarpen guztiei bide ematean datza, horiek behar dituzten antolatze eta erabakitze guneak eta baliabideak eskainiko dituen egitura izatea beharrezkoa delarik. Hartara, mugimendu honen oinarri eta espresio nagusia herritarrak eta herritarrak antolatzeko Herri Bilguneak dira. Bilgune hauek lekutuak diren herri, auzo zein hirietan jarduteko moduan antolatuko dira, tokian tokiko ezaugarri eta premiei egokiturik.

Bilgune bakoitzak aurrera eramango duen jardueraz bere erabakiak hartuko ditu, partaide guztien artean, modu konpartituan, beti ere mugimenduaren printzipio eta helburuei jarraiki.

Mugimenduak nazio izaera du eta nazio mailan aritzeko egitura bat izango du. Egitura honen egitekoa, herri bilguneei begira lan dinamizatzailea egin eta baliabideak ematea izango da alde batetik. Bestalde, Bilgune Nazionalak adosturiko helburuak eta ildoak burura eraman eta kudeatzeko ardura izango du. Momentuan momentuko egoera eta premiek hala eskatuta, berehalako erabakiak hartzeko zilegitasuna eta ardura izango du.

Funtsean, behetik gorako eragina izan nahi duen mugimendua da “Herrira”. Herritarrak eta herritarren Bilguneak dira eragin eremu eta jarduera sortzaile nagusiak, zeinak Euskal Herri osoan hedatua den mugimendua aberastu eta eraginkor bilakatuko duten.



7. EGITURA

Herri Bilguneak eta Nazio bilgunea dira mugimenduaren erabaki eta jarduera esparru nagusiak. Lehenari dagokionez, tokiko jarduerari dagozkion erabakiak eta jarduerak antolatzen ditu bere baitan. Bigarrenari dagokionez berriz, mugimendu osoaren jarduera inplikatzeko erabakiak hartzeko markoa da, zeina urtean behin bilduko den gutxienez. Horien artean, dinamizazio lana burutzeko, informazio trukerako eta baliabideen antolaketarako funtzioa duten guneak dira, eskualde zein herrialde mailan osatzen direnak. Nazio Dinamizazio Guneak, urteko Nazio Bilgunean erabakitako ildoak kudeatzeko funtzioa izango du, bai eta mugimendu osoaren dinamizazio lana garatzeko ere. Horrez gain, egoera eta premiek hala eskatuta, momentuko erabakiak hartzeko zilegitasuna eta ardura du, beti ere horren inguruan behar den informazioa eta azalpen guztiak emateko bete beharra duelarik.

Mugimenduak bere eginiko konpromiso guztiak burura eraman ahal izateko, Nazio Dinamizazio Gunean ordezkaturik izango diren lan guneak izango dira. Gune hauen egitekoa esparru jakinetara mugatzen da: komunikazioa, harremanak, elkartasuna eta nazioartea.

Laburbilduz, ondorengo guneek osatzen dute mugimenduaren egitura:

- **Erabakitze eta jardute esparru nagusiak:**

- *Herri- auzo- hiri Bilgunea.*
- *Nazio Bilgunea.*

- **Nazio Dinamizazio Gunea.**

- **Nazio Dinamizazio Gunean ordezkaturik diren lan eta dinamizazio esparruak:**

- *Eskualde- herrialde bilgunea*
- *Komunikazio lanerako gunea*
- *Harremanetarako lan gunea*
- *Elkartasun lan gunea*
- *Nazioarteko lan gunea*





8. HARREMANAK

Lehentasuna eta elkarlan esturako ikuspegia izango dute preso eta iheslarien eskubideen alde aritzen diren elkarteekiko harremanak. Hala nola, Etxerat elkarteak, Jaiki Hadi eta Abokatuen Kolektiboa.

Eragile guztiekin harremanak irekitzea izango da mugimendu honen etengabeko ahalegina, adostasunean oinarrituriko elkarlan bideak zabalduz, bai eta adostasun berriak eraikitzeke helburuz ere. Gaur posible ez diren harreman eta adostasunak etorkizunean posible izan daitezzen ahaleginduko gara.

Nazioarteko komunitatearekin harremanak ireki nahi ditugu, euskal preso eta iheslari politikoen etxeratzea, nazioarteko dimentsioa duen erronka baita.